



Sestaoko Udala.

Sestaoko Udalak laguntza ekonomikoak emateko deialdiaren laburpena, 2023-2024 ikasturtean, Sestaoko udalerrian erroldatuta eta Sestaoko udalerriko ikastetxeetan matrikulatuta dauden ikasleek eskola-jantokira joateko eta testuliburuak eta eskola-material suntsikorra erosteko.

Sestaoko Udaleko alkate-udalburuaren 2023ko maiatzaren 26ko Dekretuaren bidez, Sestaoko Udalak Sestaoko udalerrian erroldatuta dauden eta Sestaoko udalerriko ikastetxeetan matrikulatuta dauden ikasleei dirulaguntzak emateko deialdia onartu da, 2023-2024 ikasturtean eskola-jantokira joateko eta testuliburuak eta eskola-material suntsikorra erosteko.

Deialdi horretan ezarritakoarekin bat etorritik, laguntza horiek eskuratzeko Eskabideak aurkezteko epea laguntza horien deialdiaren laburpen hau Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bidez Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasi, eta 2023ko irailaren 20an amaituko da.

Sestaoko alkate-udalburuaren 2023ko maiatzaren 26ko Dekretuaren bidez onartu, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2023ko ekainaren 8an (110. zk.) laguntza ekonomiko horien oinarri arautzaileak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan eta Sestaoko Udalaren webgunean (www.sestao.eus) ere kontsultatu ahal izango dira, deialdiaren laburpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera.

Lehenengoa.- Helburua eta xedea.

Deialdi honen xedea da Sestaoko Udalak dirulaguntzak ematea, Sestaoko udalerrian erroldatuta dauden eta oinarri arautzaileetan zehazten diren irakaskuntza arautuko mailetan Sestaoko udalerriko ikastetxe ofizialetan matrikulatuta dauden ikasleek 2023-2024 ikasturtean eskola-jantokira joateko eta eskola-materiala erosteko gastuei aurre egiteko.

Laguntza ekonomiko hauen helburua da baliabide ekonomiko urriak dituzten bizikidetza-unitateetako kide diren eta Sestaoko udalerrian erroldatuta dauden adingabeak Sestaoko udalerriko ikastetxeetan eskolatzen laguntzea, eskola-jantokira joateagatiko eta eskola-materiala erosteagatiko kostu ekonomikoetan lagunduz.

Bigarrena.- Onuradunak.

Laguntza hauek jaso ahal izateko, interesdunek, oinarri arautzaileetan ezarritako gainerako eskakizunez gain, laguntza jasotzeko eskabidea aurkeztean baldintza hauek ere bete beharko dituzte:

1.- Sestao udalerrian erroldatuta egotea.

2.- Sestaoko ikastetxe ofizial batean matrikulatuta egotea, ondorengo maila hauetako batean:

-Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko 2 urteko gela.

-Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloa.

-Lehen Hezkuntza.

-Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

-Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.

3.-Bizikidetza-unitatearen hileko etekinak ez dira honako zenbateko hauek baino handiagoak izango:

-Bi pertsonak osatutako bizikidetza-unitateak: bi kidek osatutako bizikidetza-unitate bati (heldu bat eta adingabe bat) legokiokkeen hileko Gehieneko Errenta Bermatuaren % 140, Gehieneko Errenta Bermatu horren kalkulan bizikidetza-unitatearen ezaugarriei lotutako osagarriak sartu gabe.

-Hiru pertsonak osatutako bizikidetza-unitateak: bi kidek osatutako bizikidetza-unitate bati (heldu bat eta adingabe bat) legokiokkeen hileko Gehieneko Errenta Bermatuaren % 120, Gehieneko Errenta Bermatu horren kalkulan bizikidetza-unitatearen ezaugarriei lotutako osagarriak sartu gabe.



Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)

-Lau pertsonak edo gehiagok osatutako bizikidetza-unitateak: lau kidek osatutako bizikidetza-unitate bati (bi heldu eta bi adingabe) legokiokoen hileko Gehieneko Errenta Bermatuaren % 110, Gehieneko Errenta Bermatu horren kalkuluan bizikidetza-unitatearen ezaugarriei lotutako osagarriak sartu gabe.

4.- Bizikidetza-unitatearen ondareak ez izatea bi kidek osatutako bizikidetza-unitate bati (heldu bat eta adingabe bat) legokiokoen Gehieneko Errenta Bermatuaren urteko zenbatekoa halako bik baino balio handiagoa, Gehieneko Errenta Bermatu horren kalkuluan bizikidetza-unitatearen ezaugarriei lotutako osagarriak sartu gabe.

Gehieneko Errenta Bermatuaren zenbatekoak, bizikidetza-unitatearen osaera, etekin ekonomiko konputagarriak eta ondarearen balioa adierazitako baldintzetan zehazteko, Eusko Legebiltzarraren Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legean aurreikusitakoa aplikatuko da.

Hirugarrena.- Kreditua.

Deialdi honen esparruan emango diren dirulaguntzak Sestaoko Udalaren 2023ko Udal Aurrekontuko 3260.480.01 kontu-sailaren kontura izango dira («Eskola-bekak»). Aipatutako kontu-sailak 120.000 euroko kreditua izango du horretarako.

Laugarrena.- Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea laguntza horien deialdiaren laburpen hau Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bidez Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasi, eta 2023ko irailaren 20an amaituko da.

Bosgarrena.- Eskabideak aurkezteko tokia.

Eskabideak, eskatutako dokumentazioarekin batera, honela aurkeztuko dira:

-Interesdunaren gurasoak/tutoreak/ordezkariek laguntza-eskabidea aurkeztu ahal izango du, eskatutako dokumentazioarekin batera, Sestaoko Udaleko Erregistro Elektronikokoan (udaletxeko eraikina, Kasko plaza z/g, Sestao), astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako aurkezpen-bideak. Bestela, eskatzaileak Sestaoko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan duen erreferentziazko profesionalari ere aurkeztu ahal izango dio, horretarako hitzartutako aurrez aurreko elkarrizketa batean.

Sestaon, sinadura digitalaren datan.
SESTAOKO UDALEKO ALKATE-UDALBURUA,
Sin: Ainhoa Basabe Meléndez and.